

Erreferentziako txartela: Finantza-txartelen erraztasun guztiekin eta gainera...

Bidaia-asistentziako doako aseguruabantailak era guztietako 2.000 establezimendutan.

Deskontuak mundu osoan izateko giltza.

Kontsultatu BBK26 gida, [www.bbk.es](http://www.bbk.es) orrian



MAHATSERRIKO ALDIZKARIA  
**beert**

Lege gordailue: BI-85-98  
ISSN: 1577-9025

2006ko urria  
92. zkia. Doan

Begoñako ponpa estazio zaharra  
Artxandako Funikularra Lasterketa  
Mahats-Orriak interneten

**Jabier Les**

*“Esploratzailearen sentazioa izateko hasi nintzen espeleologian”*



## Salbeko garagardao fabrika (1990)

*Ez da zahar-zaharra gure zenbaki honetako argazkia, baina asko ez dira akordatu gurean garagardao edo zerbeza egiteko fabrikarik izan zanik. Bada bai, eta 1990ko hamarkadan bertan bota eben. Argazkian eraikina apur bat galduta dago eta kartela dauko, esanez ba ze bertan etxeak egin behar ebezala. Fabrikaren zoritxarra. Lelengo Salbeko zubia paratu eutsoen gan-ganean eta gero, bota.*

Argazkia Ricardo Perezek itzi dosku



Norbaitek gure bazterrotako argazki zahar edo bestelako irudirik baleuko, eskertuko genduke kopia bat egin ahal izatea. Holan, denon gozamenerako atal hontan ipiniko dogu. Aldez aurretik, esker mila.



▶ Iritzia .....	4	▶ Mahatsberriak .....	20
▶ Begoñako ponpa estazio zaharra .....	5	▶ Hezkuntza .....	24
▶ Begoña eta euskerea .....	8	▶ Mendia: San Adrian .....	25
▶ Sorgintxulo .....	10	▶ Funiko igoera .....	26
▶ Mahats-Oriak interneten .....	12	▶ Puru egileak .....	28
▶ Elkarrizketa: Jabier Les .....	15	▶ Horoskopoa/Agenda .....	30
▶ Inkesta .....	19		

Dediooooo! Ontxe leiduko dozuez leidutekoak! Bertone-tik hiliien behin bakarrik bota beharrekoan, oin gure dogun guztidxetan botako doguz botatekoak! Honeik Bertonekoen lagunek preparau doskue gure dogune gure dogunien ta gure dogun modure botateko lanzaderie. Ez dozue gehidxao ibili biherko Bertoneri begire, ez ba! Oin Bertonek bota orduko botata eukingo doguz jakin behar direzenak ta ez direzenak....

Horreri gizonari, zulora bajaten danari, bajau orduko wifidxe instalau biko jako, ze ordenadorie eroango dau koba barruen ze ikusten dauen endirektoan blogien kontateko. Da han barruen dabilela etzien lez ibiliko da etze ingeruen zer pasaten dan leiduten.

Horreik bestiek funikularrien gora karraderan ibili direzenak, oin ondinkarren arinago ibiliko direz karrerie zelan egin daurien kontateko ta fotoak erakusteko desiaten.

Da hareik berdiek taberna barruen dagozanak kontau orduko baten batek kontaute eukingo dittuz euren kontabilitate guztidzek, zer kontau daurien ta zer ez, eta zegaz kontatie ahiztu jakien be jakingo dogu eurak baino arinago.

Ta oin Abasolon pasau direzenak kontateko moduen egongo gara, bota gure dauenak zer bota gure dauen oin ez

dau eukingo atxakidxerik zer botako dauen ez dakidxela esateko. Ta bota ezteko bota behar direzenak be botateko modue eukingo daurie botaterik gure ez daurienak, ta bota ezteko egingo daurienak be bai. Ta botaten hasi ezkerroan zelan botaten daurien be ikusteko modue eukingo genduke anpulue bota bittartien.

Ta puruek zelan egiten zirien kontau doskuenak puruek, zigarroak ta pipak be kontateko kantxa zabala eukingo dau, leidu bitartien hamar kartoi fumateko bestekoan.

Ta neuk be neuriek kontauko dotez inok ostu ta harek kontau barik. Ze honeik Bertonekoak esan doskue horreik danak eskribidutie pliegodeskargoa baino fazilagoa dala. Ta oin gurien kaliek ta trafikoa dabiltzen modure egundoko abilidatie hartu dot holangoak eskribiduten, Bertontentat honeik kontuok eskribiduten baino gehidxago.

Ikusko dozue ba, Bertoneko editoridxala eskribiduten dabanen bloga topaten dozunien,... Baten bateri wifidxe ostu biot lehengo baie hori ez da problemie, ze esaten dotena eskribiduten dosten ordenadorie badekot ta. Problematxu bakarria dekot, zeren ganien eskribiduko dot Berton urten artien? Zuek kontaten dozuenan ganien in biko dot.

Firmatue: Bloginagako eskribientie

# GURE BAZTERRAK

DAMIÁN GONZÁLEZ KALEAREN ESANGURAREN INGURUAN



Begoñako eleizateko Matiko eta Uri Lorategiaren arteko parajeetan, badago kale bat Damían González maisuaren izeneko. Kale honen hasiera Tibolin dago, eta amaiera Igokundearen eleizan. Kale honek badaroa maisu horren izena 1967. urtetik hona; eginginean bere, Bilboko Osoko Bilkurak erabagia 1967ko bagilaren 28an hartu eban. Kontu berezi legez esan behar da, bera artean bizi zala ipini jakola, ezik bera hil zan 1980ko urtarilaren 25ean.

Damián González maisua jaiotako Salamanca Alba Tormeskoan, 1893ko urriaren 24an. Maisutza ikasi eban Salamancan eta Zamoran, eta oposizioak atera zituan belaunaldi-ko lehenengo legez, eta Bilbo aukeratu eban maisu-lanean jarduteko. Hasierako eskolak Olabeagan emon zituan, handik joango zan Mazarre-

doko eskoletara, Berastegikoetara eta Atxurikora. 1940an Madrilan dago, eta urira bueltan hasi zan eskolak emoten Tiboliko Epaltzako Alargunaren eskoletan, eskolotako zuzendari urte askoan zehar izan zan, eta eurentan jarraituko eban, harik eta 1962an erretiroa hartu eban arte.

Eskola-maisu legez estimu handian euki eban euren kideak, bai eta beraren ikasleak bere; horren adierazgarri da Epaltzako eskoletan dagoan idulkia; izan bere, idulki hori Lucarini eskultoreak egin eban, maisu haren ikaslea izan zanak.

GOTZON LOBERA REVILLA

# UR SARE HISTORIKOAREN AZKEN HARRIBITXIA

BEGOÑAKO PONPATZEKO ESTAZIO ZAHARRA  
BABES BARIK ETA AHAZTUTA DAGO

Herri ondarearen ale ederrak alferrik galtzen edo, are okerrago, behera botatzen ikustea ez da batere arraroa gurean. Hurrengo lerrook Bilboko ur sare historikoaren azken harribitxia agirian lagako dute. Bitxi apala, galdu direnen aldean, baina oraindik ere salbagarria. Begoñako ponpatzeko estazio zaharra gaur egun babes eta jagon barik dago, giltzarrapo baten zaintzapean.

Testua: H. O.  
Argazkiak: Bertin



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

ARGITARATZAILEA:  
Batana Batu Kultur  
Elkartea

ERREDAKZIOA:  
Kurriaga 55, 1. ezk.  
Bilbo - 48004  
Tfnoa:  
94 473 54 48  
e-posta.:  
bertin@euskalnet.net

ZUZENDARIA  
Hektor Ortega

ERREDAKZIOA:  
Arrate Diez,  
Eneritz Ibarondo,  
Nerea Aburto,  
Iratxe Ruiz,  
Dabi Piedra,  
Itxaso Perez

ARGAZKIAK:  
Iñigo Azkona  
DISEINUA ETA MAKETAZIOA:  
Iñaki Berastegi  
Joseba Barrenetxea


KOLABORATZAILEAK:  
Alberto Ugarte, Iñaki  
Gaminde, Igor M. de  
Vidales, Santutxuko  
Bertso Eskola,

Iñaki Aurrekoetxea,  
Jose Otazua,  
Benito Fiz

ADMINISTRAZIOA ETA  
PUBLIZITATEA:  
Koldo Urrutikoetxea,  
Ane Zabala  
LEGE GORDAILUA:  
Bi-85-98  
ALE KOPURUA:  
1.900

XIX. mendearen akabuan Bilbo asko hazi zen. Urte gutxiren buruan populazioa halako hiru handitu zen. Berdin albo-herriak (Abando, Deustua eta, jakina, Begoña). Sasoi hartako udal agintariak ahalegin handiak behar izan zituzten ur hornidura bermatu ahal izateko.

XX. mendearen lehenengo urteetan, Ordunteko urtegia egin baino lehen, herritarrentzako ur edangarria, besteak beste, Zolloko Kruzeta urtegitik eta Bolintxutik zetorren. Ur sarea bikoitza zen, ur edangarria batetik eta bestelako



zereginetarako urak -garbiketetarako, industrietarako- bestetik. Azken hori Ibaizabaletik bertatik hartzen zuten eta San Kristobal uhartean Hoffmeyer ingeniariaren eraginez ipinitako lurrin makinei esker gorantz bidaltzen zituzten.

Hala ur horiek nola Bolintxutik eta Zollotik zetozenak makinaren indarraren indarrak Larreagaburu (Miraflora) gaineko ur gordailuetara igotzen ziren. Bertan ponpa gehiago zegoen urak are altuago igotzeko, Begoñako elizaren ondoko ponpatzeko estazioraino hain zuzen. Eta maila horretatik ere gorago eramaten zituzten urak, Arabellako ur gordailuraino. Hori sarearen gorengo puntua zen eta, ondorioz, herritarrei banatzeko urak beherantz joaten ziren.

Aldaketa Ordunteko urtegiak ekarri zuen. 1934 eta 1964 urte bitartean Mena ibarreko bazter horretan batutako urak bilbotar guztien beharrianak asetzeko beste izan ziren. Gainera, ponpa



Goian, Begoñako ponpa estazioa barrutik. Erdian, Larreagaburuko ur gordailua eta Begoñako estazioa kanpotik. Azpian, Bolintxu.

estazioak zerbitzutik kanpo gelditu ziren, sistema berria erabili zuten eta urak modu errazagoan -eta merkeagoan- igotzeko: ur gordailuak alboko mendietako gainetan kokatu zituzten, ibaiaren alde banatan, eta ontzi komunikatuen indarraren indarrak urak eurak joiazan gorantz eta beherantz, ponpa beharrik gabe.

Egia esanda, goialdetako ur gordailuek beti behar izan dute ponparik, baina beheko eta erdi mailetako ponpa estazioak bertan behera utzi zituzten. Horren ondorioz, Larreagaburu eta Begoñako ponpa estazioak zerbitzu barik gelditu ziren. Azken horren lekuan Zabalbidekoa hasi zen lanean. Arabellan ur gordailu berria eraiki zuten, zaharra baino gorago.

1964tik aurrera, Bilbo Ur Partzuegoan sartu eta bere ur hornidu-



raren zati handi bat haren esku laga zuen. Horretarako, bere bitarteko propioak baztertuz, Bilboko Udalak Ibaizabaleko eskuin aldeko ur sarea Orduntetik eten eta Partzuegora lotu zituen. Ur hornidura Beteluritik hasi zen ailegatzeko. Udaleko aditu batzuen iritziz, Ordunteko urekin



Erdian, Bolintxuko araztegia. Azpian, Bolintxu egin zeneko urtea.

Bilboko beharrianen %90 bete daiteke. Gaur egun, %45 baino ez du betetzen.

#### BEGOÑAKO PONPA

Begoñako ponpa estazioan gaur egun moto-ponpa elektriko bat dago, lau etapakoa. Eskuz arrankatzen da, gutxika-gutxika. Gainera kontrol koadro elektriko ere badauka, baita zeramikaz egindako koadro sinoptikoa. Hori dena, gela txiki baten, zikin eta lohi, ate zahar batez eta giltzarrapo batez babestuta.

Aurrekariak ez dira onak. Alde batetik, ur sare historiko horretako ale gutxi batzuk baino ez dira salbatu. Gehiena galdu da. San Kristobal uhartea 1983ko uriolek desagerrarazi zuten, Larreagaburu gaineko ur gordailua eraitsi egin zuten,...



tetik, iraun dutenek ere kalte handiak sufritu dituzte, ez dituztelako behar bezala zaindu. Horra hor Bolintxuko araztegi eta gordailua, Pagasarriko hegietan. Galtzen utzi dute, nahiz eta bere garaian aitzin-

## Zirkuitu didaktikoak

Adituek segurtatu dutenez, ur sare historikoaren azken zati horiek berrizta daitezke eta, barbarako, ikasleei erakusteko moduan atundu. Horrelako proiektu bat egingo balitz, Bolintxu eta Begoñako ponpa estazioa garrantzi handikoak lirateke. Bolintxun mendiko urak zelatan hartzen zituzten eta, hantxe bertan, araztu ere zelatan egiten zuten ikusiko lukete. Izan ere, araztegioko filtroek oraindik ere euren hondarra daukate. Atzera ere martxan ipintzeko moduan dago.

Begoñako ponpa estazioan, txukunduko balute, ikasleek mendian hartu eta depuratutako ur horiek hiriarren goialdera igotzeko sistema ikusiko lukete.

Gure ondare historikoaren parte bat dira. Ahalegin handia eskatu zuten sortu zituztenean. Zergatik utzi behar dira orain alferrik galtzen?

daria izan zen ozonoa erabili zutelako.

Berez galdu denari lapurtu dutena gehitu behar zaio. Bolintxutik koadroak ostu dituzte, honez gero. Hala ere, Bolintxun badago zer salbaturik. Eta, zorionez, Begoñan lapurrak ez dira oraindik sartu. Baina benetako arriskua da. Ikustea besterik ez dago Elorrietako ponpa estazioan zer gertatu zen. Eusko Jaurlaritzak bertan Uraren Museoa egingo zuela iragarri zuen. Bilboko Udalak, ustez, zaintzapean zeukan. Ondare historikoaren aldeko elkarteek egokira salatu zuten. Alferrik. Kargutu orduko, bertako makinaria eta hodie-ria sakeatu egin zuten.


Beste batzuetan instituzioak eurak izaten dira arazoa. Industri Ondarearen aldeko elkarteak Joaquín Cárcamok Boluetako Santa Ana lantegia aztertzea eta merezi zuten elementuak gordetzea eskatu zion Eusko Jaurlaritzari. Alferrik hura ere. Tximinia baino ez dute laga.

# BEGOÑA ETA EUSKEREA

*Hirurte Konstituzionalak matxinda armatuak eragin zituen Hego Euskal Herrian harik eta 1823ko apirilean armada frantsesak Bidasoa zeharkatu eta Cadizko konstituzioaren erregimenaren gainbehera eragin zuen arte. Matxinada horietako batzuen haziek lotura sendoak eduki zituzten Begoñarekin.*

## 1822KO MATXINADA ANTILIBERALA BEGOÑATIK HASI ZEN

Antiliberalek baltzak eta zuriak izendatu zituzten arerioak. Baltzak, libera- lak, Espainia-ko Konstitu- zioaren alde- koak, Biz- kaian 1820ko apirilean indarrean sartu zena. Zuriak, ostera, antiliberalak ziren, bahituta uste zuten erregearen, galtzar senti-



zen zuten erlijioaren eta erauzita-ko foruen aldeko borrokalariak. Begoñan be baltzak eta zuriak izan ziren. Beste BERTON baten (59. zkia) mahatsorri zuri eta baltzen berri eman genuen. Zuriak eta baltzak, gainera, hurrengo karlistade- tan iraun zuen banaketa izan zen.

Bizkaian matxinada antiliberala egiteko prestakuntzak 1820ko ekai- nean bertan hasi ziren eta Fernan- do Zabalaren agindupean gelditu ziren. Proiektuok kolpe latza hartu zuten 1821ko otsailean Zabala Donostiako 'Txakurzulo' tabernan atxilotu zutenean. Aste batzuk geroago, Bizkaira preso zekarte- nean, bere mutilek Galdakaon askatu zuten.

Bizkaiko lehenengo matxinada garrantzitsua 1821eko abenduan

gertatu zen. Fernando Zabala eta Gezala abadea paratu ziren buruan. Euren helburua herrietako gazteak matxinatzea zen gero Bilbo bere gain hartzeko, horretarako sorpresa faktorea erabiliz. Hilaren azken egunetan, Barakaldo eta beste herri batzuetako gizon gaz- teek armetara jo zuten. Gezalak, Zeberiotik, Ugaoko alkateari etsaiaren mugimenduen berri ema- teko agindu zion "en defensa de los derechos de nuestro Católico Monarca Don Fernando 7º y de la restauración de los fueros de Vizca- ya".

Une erabakigarriak Begoñan gertatu ziren. Hilaren 17an Pontoio- ko errotari su eman zioten. Egun batzuk geroago Matxinatuak Larreagaburun -Mirafloresen- ager-

tu ziren baina ez ziren Bilbora jai- tsi. Itxura denez, hiri barruan ere matxinada iziotu behar zen, 'Patxo Landa' izeneko buruzagi baten aginduetara. Baina barruko a l t x a m e n d u horrek porrot egin zuen eta Zabala eta Gezala ez ziren hiria- ren kontra jotzen ausartu. Laster, haien atzetik bila hasi zitzairen militar eta bilbo- tar boluntario liberalen multzo bat.

Hala ere, matxinatuak Bilbo inguruko herrietan jarraitu zuten harik eta Sevilla erregimentua heldu zen arte. 1822ko urtarrilean mendi mutil talde horiek desegin ziren, beste abadaguneren baten zain.

### APIRILEKOA

Plan horren porrota ikusita, matxi- natuek planak aldatu zituzten. Bilbo bere gain hartzea larregi zela iritzita, Bilbotik ateratzea erabaki zuten. Horretarako, hurrengo hila- beteetan armak batu eta matxinada prestatu zuten.

Arma horietako asko Abusuko ola baten gorde zituzten. Matxina- daren orduak 1822ko apirilaren 23an jo zuten. Bilbotik multzo bat

atera zen eta Abusura zehar- katuta, armak hartu eta men- dira abiatu ziren. 'Mendi- mutil' bilakatu ziren, Fernando Zabalaren agin- d u p e a n , 1823ko apirila arte iraun zuen matxinadari hasiera ema- nez.

Zelan pasa- tu ziren Abusa- ra? Hona berta- ko olagizon batek kontatu- takoa. Arratsal- deko seiak aldera, "pasa- van unas gen- tes por el varco que se halla entre la presa del Montón de esta villa y la de la Peña".

Beraz, Begoñako Pontoira joan ziren eta bertatik batean zeharka- tu zuten Ibaizabal ibaia. Horrega- tik, Jose Argiarro batelaria itaundu zuten agintari liberalak. Pontoiko okindegian egiten zuen behar eta lantzean behin barkuaz ere ardura- tzen zen. Gizon bi baino ez zituen eraman beste aldera, "el uno de los tales hombres hera bastante bajo y navarro según el modo de hablar que tenía y el otro le parece que hera de hacia Guipuzcoa también por el modo de hablar".

Bilbotik ateratako multzo hori Jose Domingo Leaniz-Barrutia eta Jose Asteazararen agindupean atera zen. Armen gordailuaren ardura Felix Ibarra olagizonarena izan zen. Asteazararen izan zen Begoñako Tomas Zabala multzo



hartara batzeko konbentzitu zuena. Asteazararen, Zabalak liberaleri aitortu zienez, Leaniz-Barrutiarekin harremanetan zegoen eta hari entzun zion "que Pacholanda estaba de acuerdo con ellos proporcionando el armamento". Berriz ere Patxo Landa hura. Zelan atera ziren kontatu zuen Tomas Zabalak, Armada espainolak preso hartu eta gero. "En una taberna de la Ysla [San Kristobal] se reunió con otros a beber un trago; allí concertaron huir hasta la Peña y a la casa de un tal Felix en la cual había baríos reunidos y armados con los fusiles que de antemano estaban ya en la casa, les dieron municiones que distribuyó Domingo Barrutia y desde este punto salieron ya formados en partida".

Mendi-mutil multzo horretan zenbat gizon batu zen ez dago argi: 35, batzuen arabera, 70 edo 80 beste batzuen esanetan. Mahatso-

rriak ez ziren urri izan multzo har- tan. Besteak beste, Tomas Zabalaz gain, 'Manuel probintzianoa' - gipuzkoarra- ere Begoñakoa zen eta ogibidez, olagizona Abusuko ola baten.

Abusuko olatik abiatu baino lehen, Tomas Zabalak militarrei aitortutakoaren arabera, Barrutiak berba egin zien matxinatuei, esanez ba ze "acabava de venir de Francia, que sabía yba haber una sublevación general contra el sistema constitucional y que serían felices si contribuían a derribarle, para lo qual auxiliarían las tropas francesas que se hallaban en la frontera, y que de un dia a otro desembarcarían armas, municiones y bestuarios, con lo que los alucinó y le siguieron". Frantses armada ia urtebete berandutu zen. Abusutik irten eta lau astetarako atxilotu zuten Tomas Zabala. Ekainean fusi- latu zuten.



Kalderapeko euskal kultur gunea

www.kalderapeko.com

txakur kalea, 1. 48005 bilbo • euskal herria tfnoa: 94 416 40 99

# SORGINTXULOKO GAZTEAK, EPAILEEN AURREAN

## Azaroaren 22an lau gazterentzat 31 urteko kartzela zigorra eskatuko dute



*Abenduaren 16an urte bi beteko dira Bilboko Udalak Sorgintxulo hustu arazi zuenetik. Horren ondorioz, hainbat protesta mobilizaziotan parte hartu izanagatik epaitegietara jo behar izan duten gazteak asko eta asko izan dira; 80 auzipetu orotara. Azaroaren 22an, azken laurentzat 31 urteko kartzela zigorra eskatuko du fiskalak.*

**Testua:** Eneritz Ibarondo

**Argazkiak:** Berton

Orain arteko epaiketa guztiak artxibatu egin dituzte. Lau gazte ordea, epaiketaren zain daude oraindik; Azaroaren 22an, 31 urteko espetxe zigorri egin beharko diote aurre.

Urriaren 19an beste epaiketa bat egin zuten. Gaztetxea itxiarazi eta hilabete geroago, 2005eko urtarrilaren 5ean, Sorgintxulora berri sartu ziren sei gazteetatik adingabeak ziren biek

izan zuten epaiketa. Adinez nagusiak zirenak, duela hilabete batzuk izan zuten euren epaiketa eta kasua artxibatu egin zuten; adin txikiekin, oster, aurrera jarraitu zuten. Aurreko epaike-

tetan egin bezala, eguerdiko 12:30etarako kontzentrazioa deitu zuten Sorgintxuloko kideek. Jende ugari bildu zen bertan ordu erdi bitartean, Bilboko Udalak "gaztetxe eta gazteen aurka erakusten duen jarrera" salatzeke.

### AZKENA

Sorgintxuloren aldeko ekimenetan parte hartu izanagatik auzipetu dituzten azken lau gazteek azaroaren 22an edukiko dute epaiketa. Horietako hiruk, zortzi urte eta erdiko espetxe zigorri egingo diote aurre, eta laugarrenak bost urte eta erdikoari. Gaztetxea itxi ostean egingandako manifestazio baten ondoren Santutxuko Batzokiaren aurrean egindako 'eserialdi' batean gertatutako istiluetan parte hartzea leporatuta salatu zituen Ertzaintzak gazteak.

Gaztetxeko kideen arabera, "oso argi dago hau muntaia polizial bat besterik ez dela. Lau gazteak ez zituzten hantxe bertan identifikatu, salaketa geroago jarri zuen Ertzaintzak, eta lau gazteetako bi ez ziren eserialdian egon", nabarmendu dute gaztetxekoek; are gehiago, horietako bat lanean zegoen une horretan.



Egun horretarako ere, epaiketa dagoen guztietan bezala, kontzentrazioa deitu dute eguerdiko 12etarako Udaletxearen aurrean.

### 18AN MANIFESTAZIOA

'Muntaia' hori salatzeke, manifestazio bat egingo dute Bilbon azaroaren

18an. Epaiketa horien aurka eta orokorrean sistemak okupazio mugimenduen aurka egiten dituen erasoak salatu nahi dituzte Bilbon. Sorgintxuloko kideek aipatu dutenez, Santutxun gertatu dena ez da kasu bakarra, beste leku batzuetan ere, estrategia berdina erabili baitute. Iruñeko Euskal Jairen kasuan ere, gazte ugari izan zuten epaiketa gaztetxearen aldeko mobilizazioetan parte hartu izanagatik. Gehienak artxibatu eta bukaerarako geratu ziren zigor eskaerarik gogorenak zituztenak.

"Horrela, mugimendu baten aurkako eraso bat dena, gazte gutxi batzuen esku utzi nahi du botereak", salatu dute. Gaztetxeko kideen arabera ordea "argi eta garbi utzi behar dugu, hau okupazio mugimenduen aurkako eraso bat dela, eta horrela erantzun behar dugula". Honekin batera, azaroaren 18an Bilbon egingo duten manifestazioan parte hartzea animatu nahi dute gazte jendea.



### Garraioak



Deitu:  
Jabi: 607 43 17 91  
Txema: 607 19 68 33

# MAHATS-ORRIAK, INTERNETEKO EUSKAL KOMUNITATE BERRIA

## Asapala elkarteak bloga izateko aukera emango die Mahatserriko talde zein norbanakoei



**Azaroa agortu aurretik abian jarriko du Asapala euskara elkarteak Begoñako errepublika zaharreko auzoetako herritarren blog komunitate berria. Izena aukeratzea erraza eduki dute, 'Mahats-orriak' aukeratu dute eta. Mahatsorri guztiak, beraz, edukiko dute euren bitakora doan zabaltzeko aukera, baldintza bakar batez: euskaraz izan behar dira.**

Testua: Dabi Piedra  
Argazkiak: Berton

**"Teknologia berriak euskarara erakartzeko modu eraginkorra izan daiteke blog komunitatea eratzea"**

ko bloga izan dezan ahalbide-tzeko sortuko da, horrela, euskarazko harreman sare berri bat eratuz. Izan ere, 'Mahats-orriak' helbidean bloga eskuratzeko baldintza bakarra euskaraz idaztea izango da, Asapalaren baimena lortzeaz gain.

Blogak azkar hedatu dira interneten azken urteotan eta zenbait ezaugarri berezi dituzte. Erabiltzaileak informazioa, iritziak edo iru-

Urte hasieratik daramate Asapala euskara elkarteak blogen webgune bat sortzeko nahian eta, azkenean, badirudi ideia hori egia bihurtzeko zorian daudela. Arazo tekniko batzuk konpondu behar dituzte aurrena, baina azaroa bukatu baino lehen 'Mahats-orriak' proiektua martxan izango dela aurreikusit dute.

Webgunea, edozein pertsona zein kolektibo mahatsorri debalde-

diak jar ditzake bere blogean, beste guztiok interneten bidez ikusi ahal izan ditzagun. Blogariak argitaratzen duena orden kronologikoan ordenatuta ageri da blogean, berrienetik hasita. 'Mahats-orriak' izeneko proiektuarekin, inguruko talde edo norbanakoei horrelako bana izateko aukera eskainiko die Asapalak.


Proiektuaren helburu nagusia, euskara komunikazio gune berrietara hedatzea izango da, auzokideei eta era guztietako taldeei orain arte ez zegoen harreman sare berri batean parte hartzeko aukera eskainiz. Interneten bidez, inguruotako euskaldunen arteko hartu-emana sustatzeko beste modu bat sortuko da.

Argi dago, Asapalak hartu duen bidea ez dela euskara hedatzeko eta esparru berrietan sartzeko modu bakarra, baina blogen mundua modan dago gaur egun, denon ahotan dabilen fenomeno da eta, hortaz, arduradunei 'Mahats-orriak' bezalako proiektu bat sortzea iruditu zitzaizkien egokiena.

Horrez gain, teknologia berriak euskarara erakartzeko modu eraginkorra izan daiteke blog komunitatea eratzea. Hala ere, euskara gune berrietara hedatzeko ahaleginean, lehenengo pausua da hau eta etorkizunean proiektu gehiago egon daitezkeela adierazi dute Asapalako kideek.

### BLOG PLANETA

Dudarik gabe, gisa honetako proiektu bat laguntza nabarmena izango da Mahatserrria -Begoñako errepublika zaharra- berriz euskalduntzeko bidean. Hau ez da, ordea, 'Mahats-orriak' web orriak ekar-



Eginda

dezakeen onura bakarra. Asapalako arduradunek pentsatu dute, beren webguneko blog guztietako edukiek bat eginda, gure auzoen inguruko informazioa bildu eta hedatzeko tresna oso baliagarria osa dezaketela. Hedabide baten modukoa izango litzateke eta agenda gisa ere balioko luke. Horretarako, 'Mahats-orriak' webgunearen barruan, 'Blog Planeta' izeneko saila sortuko dute, blog guztietako edukiak bilduko dituen, kronologikoki ordenatuta, berrienetik hasi eta zaharrena. Gure inguruan azkenaldian gertatu direnak edo gure auzokideen azken burutazioen berri nahi izanez gero, tresna eraginkorra izango da Asapalak sortuko duen blog komunitatea, beraz.

### NORENTZAT

Zer esanik ez, webgune berriaren beste funtzio garrantzitsu bat, Mahatserriko kultur, kirol zein edozein arlotako elkarte edo talde guz-



tiek interneten beren txokoa izan dezaten ahalbidetzea izango da. Azken albisteak, datuak, argazkiak, partaideen iritziak eta beste hainbat gauza sarean dohainik jarri ahal izango dituzte auzoko kolektiboek, 'Mahats-orriak' gunean blog bana sortuz. Bestalde, blog pertsonalak ere onartuko dituzte Asapalakoek, zerbait kontatzeko edo erakusteko aukerak emanez. Hori bai, blogariak mahatsorriak izatea edo, behintzat, hemengo gaiei buruz jardutea eskatuko zaie, eta hizkuntza nagusia euskara izango da blog guztietan.

Dagoeneko, batek baino gehiagok adierazi dio Asapalari bloga sortzeko nahia, oraindik webgunea martxan ez badago ere. Momentuz, Euskara Elkarteko kideak eurak arduratuko dira webgunea mantentzeaz eta kudeatzeaz, ez dute inor bereziki lan horretan jarri beharrik izan. Asapalako iritziak, blogen orri bat aurrera eramatea ez da

**Agapi**  
Dekorazioa eta eskaiola  
Sabai akustikoak eta eskaiolazko dekorazio deribatuak  
Jose Migel Barandiaran Aierbe 1, 1 ezk  
Tlfnoa: 944336916 - Sakelekoa: 651709114  
SANTUTXU - 48006 BILBO

**santutxuko herriko taberna**  
Iturriaga 96.  
Gosari bereziak:  
Kalea+ pintxo 1,50 €  
Euskal Herria AURRERA!!

**Garaizar**  
JESUS GALINDEZ Nº 10  
Tlfno: 94 473 02 26 GARAIZAR - BILBO




behin-behineko bertsioa, www.asapala.org/mahatsorriak helbidean. Bertan badaude zenbait blog sortuta, baina adibideak baino ez dira, proba gisa balio dutenak. Hala ere, baliagarria da, martxan jartzean nolakoa izango den ikusteko, izango dituen atal desberdinak eza-gutzeko eta informazio gehiago eskuratzeko ere bai, esaterako, nola eta zein baldintzatan lortu daitekeen blog bat edota zeintzuk diren proiektuaren helburu zehatzak. Nolanahi ere, oraingo helbideari luzeegia irizten diote Asapalakoek eta behin-betiko webguneari litekeena da laburrago bat jartzen saiatzea. Oraingo, zerbitzua doanekoa izango da, eta blog bakoitza sortzerakoan, diseinu ezberdinen artean aukeratu ahal izango dute erabiltzaileek. Beraz, interneten bidez zerbait kontatu nahi duten mahatsorriei aukera paregabea emango die laster Asapala Euskara Elkarteak.

bereziki zaila. Hala ere, erabiltzaileen proposamen eta iradokizunak kontuan izango dituzte.

**LASTER MARTXAN**  
 'Mahats-orriak' proiektuari azkeneko pausua baino ez zaio geratzen egia bihurtzeko, ia dena prest dago

martxan jarri ahal izateko. Arazo tekniko batzuk konpondutakoan, zerbitzua ematen hasiko dira; Asapalakoan esanetan, azaroaren erdialde edo bukaerarako egon daiteke erabilgarri. Hala ere, dagoeneko sarean dago, jakin-mina daukanarentzat, webgunearen





**Zerk eramaten du pertsona bat lur azpiko kobazulo ilun horietara?**


Kar, kar. Oso zaila da galdera horri erantzutea. Orain dela hamazortzi urte hasi nintzen kobazulotan. Jakin mina izan zen. Lur azala ia oso-osorik ezagutzen dugu. Dena esploratuta dago. Erronkak espazioan eta ozeanoetan daude. Nik esploratzailearen sentsazio hori lortu nahi nuen. Esplorazioa eta abentura. Lur azala baztertua, lur azpian hasi nintzen. Berton, Bilbo inguruan, leku miressgarriak dauzkagu deskubritzeko. Izan ere, kobazuloetan deskubritzeko aukera daukazu. Nire ustez sentimendu hori izan zen kobazulo-etara eraman gintuena.

**Zazpi Kaleetako Gaztetxeko espeleologia taldearekin hasi zinen, ezta?**

Bai. Egia esanda, hasi Lizardi euskaltegian hasi nintzen. Ikasleen artean talde bat sortu genuen eta lokal bat behar genuenez Gaztetxera joan ginen. Han geundenez, izen hori ipini genuen eta Gaztetxeko espeleologia taldea sortu genuen 1989an. Urte asko egin genuen. 2000 urtean gure taldekide bat, Alfonso Antxia, Burgoseko sifoi baten buzeoan ari zela hil zen. Orduan talde osoa eraberritzea erabaki genuen. Gaztetxeko espeleologia taldea sekulako proiektua izan zen baina gauzatuta zegoen eta txiki gelditu zitzaigun. Aspirazio gehiago geneukan eta Alfonso Antxia espeleologia zientzietako elkarte eratu genuen. Urte bi dira horrela hasi ginela.

**Hasierako urratsetan kobazuloetan trebatu zineten. Gaur egun ikerketa zientifikora egin duzue salto Alfonso Antxia elkartearekin...**

Bai. Lehenengo hamabost urteetan esplorazioak, bisitak, ... lur azpiko mundua ezagutu genuen. 1996an espeleologia monitoreak prestatzeko ikastaroa egin genuen. Hurrengo urtean, 1997an, Kubara joan ginen eta han ikusi genuen zientzia egitea zer zen. Artean guretzat zientzia zen kobara sartu, topografiak egin, ... Kuban ikusi genuen bazeudela beste adar zientifikoak ere jorratzeko. Kubako espeleologoen elkarlanean



hasi ginen. Gu teknikari onak ginen eta eurak zientzialariak ziren. Eurekin ikasi genuen, adar zientifiko batzuk aukeratu genituen. Harrez gero lan zientifikoak egitea erabaki genuen, esplorazioa zati txiki bat baino ez delako espeleologian. Mundu zabal-zabala daukagu zain, zientziaren arloan. Kobazulo bat esploratu eta deskribatu ahal dugu. Orain gainera badakigu zergatik diren modukoak, zergatik dagoen ibai bat, haiz mota hau edo bestea... Adibidez Diman gertatu zaigu...

**Baltzolakoa koba osoa aztertu duzue, ezta?**

Bai, hala da. Bertara sartu ginen eta urte bi eta erdi geroago lortu genuen bost kilometro eta erdiko galeria sare bat. Horretarako giltza ikerketa zientifikoek eman ziguten: hidrokimikoak, geologikoak, klimatikoak, ... Zuk hori esploratu ahal duzu, baina ez dakizu zelan eta zergatik osatu den. Tresneria eta teknika zientifikoek bidez karst osoa zelan sortu den jakin ahal dugu.

**Baltzolan azkenean zortzi kilometro luze den kobazuloa zehaztu duzue. Guretzat harrigarria da. Horrelako kasu gehiago topatu duzue Bizkaian?**

Bai. Adibidez, Pagasarrin. Etxe ondoan. Bertako koba txikietan hasi ginen. Gure eskola izan ziren. Azkenean zazpi kilometro luze dira han topatu ditugun galeriak. Zati batzuk ezagunak ziren espeleologoentzat, baina alderdi baten hiru kilometro gehiago topatu genuen eta beste baten kilometro bi. Batzuetan urrutira joaten gara eta bertan sekulako sistemak dauzkagu. Egia esanda, Euskal Herri osoa gruyere gazta bat da, barrutik zulatuta dago. Eta orain gutxi arte, euskal kobazuloak munduko handienak izan dira. San Martineko Harria, esate baterako, munduko sakonena izan zen, 1.300

metro sakon eta 55 kilometroko galeriak.

**Zergatik diozu orain gutxi arte? Berriak deskubritu dituzte ala?**

Bai. Egunotan Kantabriako kobazulo sare baten berri eman dute, 77 kilometroko galeriak dituena. Iaz Abjasian, Kaukaso aldean, munduko leizerik handiena aurkitu zuten, 2.140 metro sakon dena. Infernu hutsa! Egunero datoz horrelako notiziak eta teknologia berriekin, gainera, gero eta errazago.

**Zertan zabilzate orain?**

Ikerketa bi egiten ibili gara. Alde

batetik, karst tropikalak ikertzen ibili gara. Sei urtez Kuban egon gara bertako kobazulo gunerik handiena -Palmarito eta Pan de Azucar- arakatzen. Hirurogei kilometro dauka. República Dominicanan be egon gara. Han bost kilometroko galeriak atera genituen baina gogor-gogorra izan zen. Eta azkena Rapanui izan da, Pazko Uharteak. Han Txileko lehen eta bigarren kobazulo gunerik handienak aurkitu ditugu. Baina labazkoak dira, sumendiek isuritakoak.

**Karrantzako Pozalaguan buru belarri ei zabilzate...**

Bai. Ikerketak egiten hasi ginen baina azkenean lurpeko laborategia muntatu dugu. Gurekin batera unibertsitateko 30 irakasle ari dira lanean. Kontua da bertan fenomeno benetan bitxiak, arraroak gertatzen direla eta kobazulo txikia da, 130 metro luze baino ez. Gela bat. Baina bere formazioa, urak, gordailu guztiak, ... bitxiak dira. Gure iritziz, Torca del Carlistarekin batera, Pozalagua da Euskal Herriko ondare espeleologiko handiena.

**Armañongo parke natural berrian sartu dituzte...**

Kobazuloak bai, baina alboko harrobiak ez. Eta hantxe bertan daude, alboan, harria ateratzen. Baina Pozalaguan, adibidez, neurtzeko tresneria paratu dugu eta horrela orduro-orduro milaka datu batzen ditugu. Horrela jakingo dugu, barbarako, bisitariak zelako eragina daukaten kobazulo barruan. Beste laborategi bat Mendukillon jarri dugu, Lekunberri ondoko kobazulo baten. Zelako datuak batzen ditugun? Ez da bakarrik hezetasuna, CO2, temperatura eta presioa. Erradioaktibitatea neurtzen hasi gara, uren osagai kimikoak, kristalografia, espektrometria, ... Horrelako alderdiak hemen inork ez ditu ikertu, besteak beste tresneria garestia behar dutelako. Ikerketa horiekin mundu mailan ere punta-puntako elkarte bilakatu gara. Emaitzak buletin baten publikatzen ditugu, euskaraz eta erdaraz. Ikerketa guztiak argitaratuko ditugu.



### Bestelako espediziorik daukazue buruan?

Seguruenez, otsailean Rapanuira itzuliko gara. Eta aurrerago, Panamá eta Venezuela dauzkagu pentsatuta.

Zuen kide Alfonso Antxiaren heriotza aipatu duzu lehen. Buzeoa bereziki arriskutsua da

### kobazuloetan edo istripu hutsa izan zen?

Alfonso Antxia espeleobuzeoan aitzindaria izan zen gure artean, sakoneko buzeoa gainera. Hil zenean, Artikoan hondoratu zen Kursk urpekontzia bezain sakon zegoen Alfonso, egizu kontu. 93 metrotan. Heliozko botila batekin jaitsi zen.

Han istripu txiki bat eduki zuen, eskape libre bat erreguladorean. Hori ordenagailuan ikusi dugu. Hain sakon egonda segundo pare bat nahikoa da botila osoa pikutara joateko. Bera igotzen hasi zen. 60 metrotan beste botila bat zeukan baina ez zen heldu. Bihotzeko bat eman zion hamar metro falta zitzaionean. Erreskatea egiterakoan zer gertatu zen? Estatu espainol osoan ez zegoela inor koba baten barruan horren behera jaisteko presatuta.

### Bizkaiko kobazuloak zelan daude?

Bizkaian ia 3.000 koba eta leize daukagu. Euretirik hogeitatu Estatu osoko katalogorik garrantzitsuenen daude. Badaukagu 60 kilometroko koba bat, beste bat 30 kilometro luze, ... Polit-politak dira, ondo gordeta daude eta espeleologoek bakarrik bisitatzen ditugu. Ondo kontserbatuta daude, orokorrean. Badira, hala ere, jende asko joaten diren kobazulo pare bat, Baltzola eta Supelegor. Han badakizu beti egongo dela inor. Baltzola da Bizkaian lehenengoz esploratu zen kobazuloa, XVIII. mendearen akabuan. Bertatik milaka lagun pasatu dira.

### Zein izan da lur azpian topatu duzun sorpresarik handiena?

Orain dela astebete gertatu zait. Almerian egon gara ekipokoak, munduko marabila bat ikusten. Geoda bat da, haitz bat barrutik kristalezkoa dena. Bada, horrelako koba bat agertu da Almerian, meategi baten. Argazkiak egiteko deitu ziguten. Zortzi metro luze da eta metro bi altu. Barrutik sekulako kristalak dauzka. Miragarria da, berriz!

## Zortzi galdera labur

Filma: Underworld

Liburua: Akuaku

Kantua: Cicatrizen edozein.

Janaria: Okela.

Kirola: Espeleologia, zein bestela?

Mendia ala hondartza? Mendia.

Lekua: Karibe.

Kobazuloa: Baltzola.

## Abasolo txakolindegia bota nahi dute bertan etxeak egiteko. Zer pentsatzen duzu?

BELEN  
(ZURBARANBARRI)

PENA LITZATEKE,  
INGURUOTAN  
GERATZEN DEN BAKARRA  
DELAKO, EZTA?



LUISMA  
(ZURBARANBARRI)

NIK ETXEAK ERAIKITZEARI  
ONDO DERITZOT, BAINA  
TXAKOLINDEGIA BERE  
LEKUAN UTZITA, HORI  
GURE KULTURAREN ZATI  
BAT GALTZEA IZANGO  
LITZATEKE ETA.




ANA  
(URIBARRI)

BETI-BETIKOA DA TXAKOLINDEGIA,  
EZIN DUTE BOTA! BERRIA JAKITEAN  
TRISTE GELDITU NAIZ.  
GAINERA, ARRATSALDERO-ARRATSALDERO  
KARTETAN DOAN EDADEKO JENDEAREN  
BILGUNA DA, ETA HORI ERE KENTZEN  
BADIETE...

ASIER  
(ZURBARANBARRI)

OSO TXARTO IRUDITZEN ZAIT,  
ANTZINAKO BILBOKO AZTARNA  
GUZTIAK GALTZEN UZTEN  
DITUZTELAKO. ABERATSENTZAKO  
ETA TURISTENTZAKO HIRIA  
SORTZEN ARI DIRA, ETA  
EZ BERTOKOENTZAT.



FERNANDO  
(URIBARRI)

OSO TXARTO IRUDITZEN ZAIT  
ERAIS-TEA, AUZOKO BETIKO  
SINBOLO BAT DELAKO. EDERTO  
JATEN DA ETA MERKE, GAINERA!  
ETA ARE GEHIAGO, ATXIPUNBA  
PEÑAREN EGOITZA DA. AUZOAREN  
SINBOLOA EZ EZIK ATHLETIC-ARENA  
ERE BADA!



EMILIA  
(ZURBARANBARRI)

EZUSTEAN HARRAPATU NAU  
BERRIAK. LEKUA, IKUSTOKI  
GISA ONDO DAGO. DENA DEN,  
TXAKOLINDEGIA MANTENDU  
BEHARKO DELA USTEDUT,  
BOULEVARD KAFETEGIA  
BEZALA. AZKEN FINEAN,  
TRADIZIO BAT DA.



TXETXU  
(ZURBARANBARRI)

BADA, PENA LITZATEKE.  
TXAKOLINDEGIA ONDO DAGO  
EDONOIZ ZUHAITZEN AZPIAN  
MERIENDA BAT EGITEKO EDO,  
LEHENGO BATEN BEZALA,  
URIBARRIKO JAIETAKO BAKAILAO  
TXAPELKETA EGITEKO. EZ IKUTU  
GERO!

TINTXU (URIBARRI)

EZ DUTE ERAITSI BEHAR,  
BERE HISTORIA DAUKALAKO.  
URTEA DIRA BAKAILAO LEHIAKETAK  
BERTAN EGIN DIRELA. AUZOARI  
BIZITASUNA EMATEN DIO.



Mahatserrian azkenokaz izan direnak

## Begoñako igogailua zabalik mantentzeko eskatu du herritar talde batek


Bilboko Udalak itxi nahi duela salatu dute, metroko igogailuaren mesedetan

*Esperantza kalea eta Mallona arteko igogailua zabalik mantentzeko eskatu du herritar talde batek, Bilboko Udalak itxi nahi duela-koan. Erabiltzaile multzo horren ustetan, Metroaren igogailuak hartuko du bere gain gaur egun Begoñakoak ematen duen zerbitzua. Igogailua zabalik edukitzeaz gain, goitik behera zaharberitzea ere eskatu dute.*

"Begoñako igogailu historikoa, alderdi horretako bizilagunontzat hain mesedegarria izan dena, atek ixteko zorian dago". Horrela hasten da herritar talde batek igogailuaren defentsan zabalduko agiria. Euren iritziz, Zazpi Kaleetako metro geltokiko igogailuak hartuko luke bestearen lekua, "baina horrek ekarriko luke arazo bi: sarbidea zailagoa dauka eta prezioa askoz ere garestiagoa da".

Erabiltzaile talde hori kexu da Begoñako igogailuaren egoeraz, bere instalazioak eta baldintza teknikoak egokiak ez direlakoan. "Baina akats horiek konpontzeko modukoak dira eta horrela igogailuak zerbitzua ematen jarrai dezake modu seguru eta merkean", idatzi dute euren agirian.

Herritarrek eurek emandako datuen arabera, urtean 600.000 lagunek erabiltzen dute igogailua, "bere prezioa egokia da eta interes publikoa daukan zerbitzua da". Ideia guzti horiekin kartelak egin dituzte eta Begoñako igogailuaren inguruan lotsatsi dituzte, hala Espe-



ranta kalean nola Mallona aldean.

### ESKAKIZUNAK

Erabiltzaile multzo horrek lau eskari nagusi plazaratu ditu bere agirian. Alde batetik, jakina, igogailua zabalik mantentzea, Begoñako herritarrei ematen dien zerbitzuagatik. Bestetik, bere txartelen prezioari ere eustea,

metroarena baino askozaz merkeagoa delako. Instalazio guztiak zaharberitzeko ere eskatu dute. Azkenik, bertako langileen lanpostuak ere gorde behar dituztela aldarrikatu dute.

Gaur egungo akatsen artean, leku batzuetan argi gutxi dagoela aipatu dute, itoginak ere badirela eta garbitasuna ez dela behar bestekoa. Gainera, bertako behar-gintzako komunak ere eskatu dituzte baita igogailuen segurtasuna bermatzeko ikuskatzeak ere.


### HISTORIKOA

Begoñako igogailua historikoa da, duda barik. 47 metroko alde dago Esperantza kalearen eta Mallonako goialdearen artean. Bere berezitasuna, Iñaki Uriarte arkitektoak BERTONen idatzi zuen bezala, bere zati bietan datza: igogailurako kutxa bertikala batetik eta igogailutik Mallonara ailegatzeko oinezkoentzako zaldaina bestetik. Biak zementuzkoak dira.

1944 diseinatu zuen Rafael Fontán arkitektoak eta 1949an eraiki zuten. Erraz ikusten den elementua denez, Bilboko paisaiaren mugarrietako bat bilakatu da.


## OIHANA BARTRA, SAILKATUTA.-

Oihana Bartra mahatsorria Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalurrekoetan egongo da, Arrigorriagako saioan nagusitu eta gero. Santutxuko bertsolariak lehenengo postua eskuratu zuen eta beste mahatsorria, Urtzi Urrutikoetxea, hirugarren gelditu zen.



## EUSKAL TONBOLA.-

Kontseiluak abiatutako Euskal Tonbola gurera heldu da. Honez gero, Begoñako errepublika zaharreko taberna batzuetan salgai dago -Santutxuko Ernai, Sugea eta Herriko Taberna, besteak beste-, eta baita Zazpi Kaleetan eta Bilboko gainerako auzoetan ere. Euro baten truke, sari politak dagoz, Txinara bidaia bat tartean.



## PADDY REKALDE, ARBIDEAN.-

Paddy Rekalde deustuar idazlea ekarriko du Asapalak bere 'Irakurlearen Tarte' sailera. Azaroaren 29an egongo da, arratsaldeko 8etatik aurrera, Arbideako euskaltegian. 'Ragga-ragga dator gaua' nobela berria aurkeztuko du Rekaldek. Julen Gabiriak gidatuko du solasaldia.

Elektriko eta industrial instalazioak

Proyectos y Presupuestos

**J. Ruiz** Instalador Autorizado

\*Obras, mantenimientos y reparación de instalaciones  
\*Acumuladores, alarma nocturna y calefacción bajo consumo  
\*Porteros automáticos y videopuertas  
\*Aire acondicionado

Juan de Giscalia nº9 Loinza 48004 Bilbako Fax: 944111652-47-636703855

**BI-96.0-FM**  
Bilbo Hiria irratia

[www.bilbohiria.com](http://www.bilbohiria.com)

**ABENDUKO ZUBIA**

ITALIA	589 Euro
MAROKO	589 Euro
AMSTERDAM	320 Euro
ROMA	350 Euro
VENECIA	350 Euro

mikelizargi@euskalnet.net  
**Izargi Bidaiak**

GRUPO STAR VIAJES

www.ibiltari.com

Iturrigaga, 69  
Tel. 94 473 00 45  
Fax 94 412 07 28  
48004 SANTUTXU - BILBO

**KAIKU**  
Munduko Herrien Betea

Asuaga 1 Santutxu

**ADI ASESORIA**  
FISCAL - CONTABLE - LABORAL - JURIDICO - MERCANTIL

Oleta, s/n - 48970 BASAURI  
Tel. 94 426 08 08  
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO  
Tel. 94 411 08 55  
adiasesor@adi.euskalnet.net

**Zergak-lan harremanak kontabilitatea juridikoa merkatalgintza**



ERRIKARRIAK




### ABASOLO TXAKOLINDEGIAREN ALDE. -

Uribarriko Gure Etxea auzo elkarteak kanpaina hasi du Abasolo txakolindegia eta haren inguruko zuhaitzia salbatzeko. Jakina denez, bertan etxeak egiteko eraitsi nahi dute azken txakolindegia herrikoa. Auzo elkarteak sinadurak batuko ditu alderdi hori zaindu eta berritu dezaten.

### ERROMERIA BEGOÑAN.-

Urteroko ohiturari jarraituz, urriaren 11 milaka lagun batu ziren Begoñako elizan eta inguruetan Andra Mariren erromerian. Egunean zehar euria bota bazuen ere, iluntze aldera atertu eta jai giro gozoan egin zuten Ama Birjinaren omenezko ospakizuna. Antolatzailea Begoñako kofradia izan zen, azken urteotan bezalaxe.



### SALBEKO ZUBIA, ARTELAN.-

Bilboko Guggenheim museoak datorren urtean hamar urte beteko dituela eta, Salbeko zubia artelan gisa erabiliko du. Horretarako, hiru artistari proiektu bana enkargatu diete. Hala herritarrek nola adituek aukeratu ahalko dute eta hautatutakoa gauzatuko dute. Argazkian, Jeny Holzerren ideia.

## Guardia Zibila, Santutxuko Herriko Tabernan

Hiru ordu eta erdiz egon ziren, kanpoan ehunka lagunek protesta egiten zuten bitartean

*Guardia Zibila Santutxuko Herriko Tabernan sartu zen urriaren 23an Madrileko auzitegi baten aginduz bertako ondasunen zerrenda egiteko asmoz. Hiru ordu eta erdi eman zuten Iturriaga kaleko lokala miatzen, kanpoaldean ehunka lagunek protesta egiten zuten bitartean. Azkenean oihuen artean alde egin zuten.*

Guardia Zibila arratsaldeko hiruretan azaldu zen Santutxuko Herriko Tabernan. Espainiako Auzitegi Gorenaren agindua zekarren lokaleko ondasun guztien zerrenda egiteko. Ordu horretan bertan, Hego Euskal Herriko lau herrialdeetako beste lokal batzuetara ere sartu ziren. Santutxuko Herriko Tabernara lau patrol heldu ziren eta baita auto kamuflatu batzuk. Bertan langile bat eta bezero bat baino ez zeuden. "Metrailetak eskuetan sartu dira lokalera -kontatu zuen bezeroak- eta hormaren kontra jarri eta miatu gaituzte. Lasaitu direnean, identifikatu eta gero irteteko esan didate". Atetik ez ezik, leihotik ere sartu ziren uniformedunak.

Berehala hasi zen jendea kanpoaldean protestan. Lehenengo 50en bat lagun elkartu zen, Guardia Zibilak hala behartuta, errepideaz bestaldean. Denborak aurrera egin ahala jende gehiago agertu zen. Hala guardientzat nola eurak laguntzera etorri ziren ertzainei oihu latzak bota zizkieten. Trafikoa, bestalde, lehenengo etenda eta gero zeharo motelduta gelditu zen Iturriaga kalean. Eta bitartean, Herriko Taberna goitik behera arakatu zuten.

Kanpoaldean jende larregi zegoela iritzita, guardiak eurengana hurreratu eta hogeit bat laguni iden-



Herritarrek guardia zibilen atzetik joan ziren 'sakaka'.

tifikatzeko agindu zieten. Horren ondorioz, herritar asko joan egin zen. Baina arratsaldeak aurrera egin

ahala, berriz ere gero eta lagun gehiago batu zen kanpoaldean, 'Alde hemendik. Euskal Herria aitortu eta errespetatu' zioen pankartaren atzean. Ertzaintza herritarren aurka kargatzeko prest agertu zen, baina Guardia Zibileko arduradunak ezetz erantzun zuen.

### ATZERAKA

Sei eta erdietan guardia zibilak alde egiteko preskakuntzekin hasi ziren. Ertzaintzarekin koordinatu, kaleko jantzitakoak atera eta, azkenik, zortzi bat guardia, batzuek metrailetak eta besteek porra luzagarriak eskutetan zeuzkatela, atzeraka hasi ziren. Artean, kanpoan batutakoak berrehunen bat ziren eta, pankarta bat hartuta, uniformedunen atzetik abiatu ziren 'Alde hemendik, utzi pakean' deiadarka. Ostean, 'Eusko Gudariak' abestu zuten. Berehala Ertzaintza agertu zen herritarrek sakabana-tzeko, eta oihuekin hartu bazituzten ere, ez zen istilurik izan.

Santutxuko Herriko Tabernan espainol indar armatuak zeuden bitartean, kanpoaldean Tasio Erkiziak ezker abertzalearen izenean gogor kritikatu zuen operazioa. "Probokazioa da", esan zuen buruzagi mahatsorriak eta PSOeri eta Patxi Lopezi egotzi zion horren ardura.

# BERBALAGUNA PROIEKTUA ESKOLETARA ZABALDU DA

lazko esperientziaren ostean Begoñazpi, Briñas, Kirikiño eta Karmelo ikastoletan hasiko da

*Berbalaguna euskaraz egin nahi duten euskaldun berriak laguntzeko proiektua. Astean behin ordu betez berbetan jarduteko gelditzen dira berbalagunak. Bada, iaz lehen esperientzia egin zuten eskoletako guraso talde batekin eta, balantzea ona zela ikusita, aurten ikastola gehiagotara zabaldu dute.*



Karmelo ikastolako berbalagun talde bat.

Azaroan zehar lau ikastoletako gurasoei eskainiko diete berbalagun taldeak osatzeko aukera. lazko esperientzia Karmelo ikastolan egin zuten eta bertan sortutako talde biek jarraitu egingo dute. Karmeloz gain, Briñas eskolako eta Begoñazpi zein Kirikiño ikastoletako aita-amek parada edukiko dute astean behin umeak ordubetez laga eta beste guraso batzuekin euskaraz berba egiteko.

Bultzatzaileak Asapala euskara elkarte eta AEK dira. Berbalaguna proiektuari ekin ziotenetik laugarren ikasturtea hasiko du azaroan eta bertan 120-130 lagun elkartuko dira astero euskaraz praktikatzeko. Hori nahikoa ez irizita, bestelako aukerak aztertzen hasi ziren. Euskaraz ikasten duten umeen gurasoak euskaraz trebatzea helburu garrantzitsua zela ikusita, zelan egin aztertu eta Berbalaguna esko-

letara eramatea erabaki zuten.

"Helburua da etxeko hizkuntza ohiturak aldatzea. Horretarako, gurasoen euskara maila eta jariora hobetu nahi dugu", azaldu du Oihana Ondarra proiektuaren arduradunak. Etxeko hizkuntza euskara izan dadin umeak txikiak izan behar dira, "behin adin batetik aurrera ohitura horiek aldatzea oso zaila izaten delako", argitu du. Horregatik, eskoletako berbalagunen aukera bi eta zazpi urte arteko umeen ama eta aitei mugatuta dago.

## UMEAK ZAINDUTA

Karmelo ikastolan aurreko ikasturtearen azken zatian hamahiru lagun sartu ziren Berbalaguna proiektuan, talde bi osatuz. Euren zortzi seme-alaba ikastolan bertan egon ziren, olgeta lekuan begira-learekin gurasoak euskaraz berbe-

tan ziharduten bitartean. "Gainera, haurrak begira-learekin daudenez, euskaraz jolastuko direla segurtatu ahal dute", nabarmendu du Ondarra. Umeak leku bitan egon ahal-ko dira: Karmelo ikastolako Santa Martako lokaletan edo Kirikiño ikastolan.

Lau eskola eta ikastolak ongi etorri gozoa egin diote proiektuari. Hala ere, oraindik ere ezin jakin proiektuak espero bezalako emaitza politikak jasoko dituen. "Ikastolentzat ere aukera polita da, beste zerbitzu bat eskaintzen baitizkiete gurasoei eta horrek ez die lan handirik eskatzen", aipatu du arduradunak.

Beraz, datozen egunetan eskola eta ikastoletako berbalagunak jardunean hasiko dira. Lehenengo Karmelo ikastolan hasiko da eta geroago, hil akabuan, Kirikiño-ko utzitako lokalean.

## SAN ADRIAN (1132 M.) - BAITZA (1183 M.) LIZARRAGA


Bilbotik Iruñerako bidean Etxarri Arantz herrira heltzean eskuinaldera joko dugu Lizarraga herrirantz. Bertan utzi genuen kotxea.

Errepide nagusitik igoz Lizarraga-ko azken etxeak igaro ondoren, lehen biragunean eskuinera ateratzen den bide edo pista zabala hartuko dugu. Handik sartu bezain laster burdin ate bat (A) zeharkatu eta apur bat aurrerago ur gordailua dago. Ez litza-teke gehiago argitu behar, zeren eta pista honetatik jarraituz mendiaren hegia lortuko baitugu. Hala eta guztiz ere, bidean ikusi genuena adieraziko dugu.

Ur gordailua igaro eta gero aldapa gogorra hasten da. Laster pagadi batean sartuko gara. Gorago, lehen biragunea pasatu ondoren, ezker aldean eta bide ondoan iturri (B) gozo bat dago. Hurrengo biragunean mendiaren hormarekin egingo dugu topo; ezker aldetik beste pista bat ikusten den arren guk ekarritakoari jarraituko diogu eskuinalderantz. Ia bertan leize edo haitzulo bat ikus daiteke. Pagadia amaitzerakoan pasabide zabal batean egongo gara. Hori da hegia (1.050 m.) toki honi Lizarraga edo Etxarri Arantz esaten diote. (C).

Handik aurrera oso ondo markatuta dagoen gurdibidetik abiatuko gara ezkererantz, eta ordu laurden barru San Adrian basilizan eta tontorrean kokatuko gara (1.132 m.). Denetara, ordubete beharko dugu.

Gure lehen helburua beteta dagoenez, eguraldi ona eta ikuspegi ezin hobea, ogitartekoa jan eta zahatoari zurrutada on batzuk eman ondoren, berriz itzuliko gara Lizarraga edo Etxarri Arantz pasabidera; handik gailurreratik aurrerantz jo genuen eta ordu erdian Baitza (1.183 m.) tontorrean geunden. Goi-erpin eta txartel kutxa ditu.



Aipatu pasabidetik Baitza tontorrera bi trikuharri (D) ospetsu ikus daitezke (Portugaina I eta Portugaina II izenez ezagutzen dira), baita tumulu batzuen aztarnak ere tontorrean.

Lehen trikuharriaren ondoan, beherantz abiatzen den pista bat dago marroiz eta horiz markatuta. Pista hori Bakaikura doa.


**Sastrea**  
**EDRO**  
**IRUDIA SORTZEN DUGU**  
BILBO  
Santutxu kalea, 37 www.bilbaoeb.com/Spedro  
Tfona: 944 128 714 E-Mail: iban.lopez@navegalia.com

**HORTZ KLINIKA**  
GERMÁN BERGARETXE  
GABRIELARESTI, 30 4. G  
TXURDINAGA  
94 412 82 74

**MESÓN**  
**BURETXE**  
Santutxuko poteo gunean

# ARTXANDAKO FUNIKULARRAK LASTERKETA BEREZI BATEKIN OSPATU ZUEN 91. URTEURRENA

**El Guarrah, Romero eta Agirrebeitia nagusitu ziren**



*Korrikalariak, funikularraren ibilbidearen ondoan dauden ia 1.500 eskailerak gainditu behar izan zituzten, Castañosen hasi eta goiko geltokiraino joan ziren. Gizonezkoetan, Mohamed El Guarrah nagusitu zen; emakumezkoetan, Alizia Romero eta beteranoen artean, Pello Agirrebeitia.*

*Testua: Dabi Piedra  
Argazkiak: Iñigo Azkona*

Bilboko Udalak 'I. Igoera Artxandako Funikularretik' izeneko lasterketa antolatu zuen urriaren 7an, garraio-bide ezagun horren 91. urteurrena ospatzeko asmoz. Proba berezia izan zen, ibilbidearen zatirik handiena funikularraren bidearen ondoko eskaileretatik egin baitzuten.

Ibilbide laburra, 938 metro besterik ez, baina oso gogorra prestatu zuten antolatzaileek, izan ere, erabat

aldapa gora zen eta ez nolana hiko aldapa gainera, hasieran %25eko malda baitzeukan eta amaierako zatian %45ekoa. Orotara, 1.451 eskailera-maila gainditu zituzten partehartzaileek, Castañosen hasi eta funikularraren goiko geltokiko plaza-txoraino.

## HAMASEI

Ibilbidea oso estua zela eta, antola-

tzaileek berariaz gonbidatutako hamasei atletak baino ez zuten parte hartu, hiru kategoriatan banatuta: Beteranoak, senior emakumezkoak eta senior gizonezkoak. Goiz eurtua egokitu zitzaizkien korrikalariak, baina, hala ere, antolatzaileek aurreikusitako denborak bete ziren.

Beteranoak lehiatu ziren aurrea eta 6 minutu eta 57 segundo behar izan zituen Pello Agirrebeitia irabaz-



leak goraino iristeko. Emakumezkoetan, aldiz, Alizia Romero gailendu zen, 8 minutu eta 3 segundoko denborarekin eta bigarren lekuan Boluetako Loli Benitez heldu zen.

Ekitaldiko denborarik onena, ordea, gizonezko seniorretan lortu zuen Mohamed El Guarrah txapeldunak, 6 minutu eta 49 segundoko markarekin. Bizkaian bizi den marokoar atleta hori aise gailendu zitzaizkien aurkariak eta, bere atzetik, Imanol Marrokin izan zen bigarren eta Unai Saenz de la Fuente hirugarren.

## BALANTZE ONA

Artxandako Funikularraren 91. urteurrena ospatzeko, lasterketa berezi horrez gain, umeentzako jolasak ere iragarri zituzten antolatzaileek goiz hartarako, baina eguraldi txarrak eraginda, bertan behera geratu ziren ekitaldiok. Hala ere, antolatzaileak gustura

geratu ziren lasterketak sortutako interesarekin eta datorren urteetan errepikatzeko asmoa daukatela adierazi zuten.

# SANTUTXUKO PURU EGILEAK, MITOA GAINDITUZ

Testua: *Nerea Aburto*  
Argazkiak: *Berton*

**Merimée frantziar idazleak sortu zuen, XIX. mendean, 'Carmen' puru sal-tzailearen pertsonaia, eta opera ezagunean, Bizetek mitoari musika jarri zion. Orduan Sevillako tabako fabrikaren langile arin eta lotsagabeak ziren protagonista, baina, hain urrun joan barik, eta baten batek gogoratuko duen modura, Santutxun ere, Bizkaiko tabako fabrika eta puru egileak egon ziren XX. mende erdira arte. Bilboko Udalak antolatu hitzaldi baten kontatu du Arantza Pareja irkasleak.**



Tabako fabrika Unzeta parrokoaren etxe-multzoaren orubean zegoen.

1877an, dagoeneko tabako kontsumoa gizartearen maila guztietara hedaturik zegoenean, Espainian buru zen gobernu liberalak tabakoaren manufakturaren monopolioa nahi izan zuen. Ordurako, tabakoa puru bihurtzearen prozesua industrializaturik zegoen eta gobernuak 'Compañía Arrendataria de Tabacos' izeneko erakundeari eman zion tabako industria honen kudeaketa. Espainiako hiririk nagusienetan tabako fabrikak sortzen hasi ziren. Begoñakoa 1887an jarri zen martxan. Santutxuko San Franziskito elizaren inguruan, gaur egun Parroco Unzeta etxaldea kokatzen den eremuan ezarri zuten, oraindik Begoña errepublika zenean, XIX. mendean kuartel modura erabilitako eraikuntza baten.

Espainiako tabako lantegirik handiena Sevillakoa zen, orduko Bizkaiko Labe Garaiekin parekatu zitekeena langile kopuruan (5.000 inguru). Gure inguruan Donostiakoak edo Santanderrekoak garrantzi gehiago izan bazuten ere, Begoñako tabako fabrikak XX. mendearen hasieran 500 langile izatera heldu zen; denak emakumeak eta ondoko Ollerias eta Atxuriko langile auzoetako bizilagunak. Urteak joan ahala, eta Donostiako lantegiak garrantzia hartzen zuen heinean, Begoñakoak, ordurako Bilboko udalerrian sartua zena, langileak galtzen joan zen, azken hamarkadetan 150 langile ingurura jaitsiz.

## EMAKUMEAK

Tabako fabrika hau, Boluetako Santa Ana metalgintzarekin batera, Begoñako industria bakarra zen baina, horrez gain, gainontzeko tabako fabrika guztiak bezalaxe, berezitasun bat zeukan: langile denak emakumeak ziren. Eta hau ez zen batere arrunta, Arantza Pareja, EHuko Biz-

kaiko Esperientzia Gelatako irakaslea eta Santutxuko puru egileen inguruko ikerketaren arduradunak azaldu duen bezala: "Mende hasierako emakumeek ez zuten industrian lan egiteko aukerarik eta, Bizkaian, Begoñako tabako fabrikaz gain, Kastrexana inguruan zegoen oihalgintza fabrika baten baino ez zen ematen emakumeak bakarrik egotea lanean."

Puruak egitea emakumeen lana izatearen arrazoiak zaharrak omen dira eta Begoñan fabrika sortu zutenerako "askj frogatua zegoen puruak egiteko orduan emakumeak gizonezkoak baino abilagoak zirela", esan du Parejak. Baina ez hori bakarrik, emakumeen lana gizonezkoen berdina izanik, %25 gutxiago irabazten zuten garai haie-tan eta horrek etekin handiagoak ziurtatzen zien enpresa buruei. "Arrazoi praktikoak eta logikoak ziren: emakumeak arinagoak, hobeak eta merkeagoak ziren enpresaren-tzat."

Puru egileak industria langileak zirenez, eta nahiz eta euren soldatak orokorrean baxuak ziren, garaiko emakumeengandik guztiz ezberdintzen ziren; hasteko, etxetik kanpo lan egiteko aukera izatea ez zelako batere arrunta, behin ezkondu eta gero are gutxiago, eta maneiatzen zuten dirua, industria soldata batek ematen zuena, besteek izan ahal zutena baino askoz gehiago zelako. "Ezin dugu pentsatu aberatsak zirenik baina euren soldata orduko emakumeentzat oso ona zen. Garaiko emakume gehienek etxetik kanpo egiten zuten lan, guri arraroa egiten bazaigu ere, XX. mendearen hasieran soldata bakar batekin bizitzea ezinezkoa zelako, eta emakumeak eta umeak ere lan egitera derrigortuta egoten ziren", argitu du Arantza Parejak.

"Baina emakumeek egiten zituzten lanak ekonomia ezkutu baten barruan sartzen ziren eta arropak garbitu, josi, saldu edo etxeetan zerbitzatzearen truke jasotzen ziren diru sariak ezin ziren industriako soldatekin parekatu." Horregatik, puru egileak, modistekin batera, garaiko emakumeak baino baldintza hobeak zituzten eta ezberdintasun hauek mitoarekin batera piztu egin zen estereotipoa sortu zuten.

## MITOAZ GAIN

Baina, zer dago Carmen irudi horretan gure inguruko puru egile horiekin parekatu daitekeena? Antza denez, eta beti Arantza Parejaren ikerketek agertzen dutenaren arabera: "La Habana edo Sevillako lantegietan egoten zen beroarekin emakumeak oso

arropa gutxirekin joaten ziren lanera. Gainera, puruak errazago eta hobeto egiteko, emakumeek gona altxaturik hanka artean egiten zutela eta horregatik emakumeek egindako puruak goxagoak zirela zabaldu zen, eta horrekin batera puruak erretzearen mitoa ere."

Eta Santutxuko puru egileen kasuan, askotan Bizeten pertsonaiak zuen askatasun eta lotsagabekeri berdina agertzen zutela ematen du: "Modistekin batera, puru egileak hiritar langileen artean nabarmentzen ziren emakume tipok ziren, hain zuzen, emakume hauen askatasun ekonomikoak beste emakumeek ez bezala jokatzeko aukera ematen zuelako. Horregatik, adibidez, 1900eko Bilboko eroldaren arabera, puru egile gisa lan egiten zuten emakume asko ezkongabeko amak ziren, beste maila batzuetan pentsa ezina zena." Garaiko prentsak sarritan jasotzen



Sevillako puru egile bat.

omen zituen euren inguruko albisteak: "Erromerietara joaten ziren eta gero egunkarian euren portaerari buruzko albisteak agertzen ziren edota euren janzkera eta askatasun moduengatik kritikatzeko zituzten".

Baina mitoak egia puntu bat bazuen ere, ezin da ahaztu emakume hauek langileak zirela, eta industria munduaren eta garai haietako baldintzak ez zirela batere errazak. "Oso gaztetik hasten ziren lanean, askotan ama edo izekoren baten eskutik, eta hauek lanbidea erakusten zieten bitartean ez zuten ezer kobratzen. Egunean 10 ordu egiten zuten lan, nahiko osasun eta garbitasun baldintza kaxkarretan eta gero etxeko ardurak bete behar zituzten. Ia denak Ollerias eta Atxuri inguruan bizi ziren, hori baitzen, Abusu, San Frantzisko eta Kortez

inguruekin batera, langilegoaren bizilekua. Eta auzo horietako baldintzak ez ziren batere erosoak." dio Arantzak. Horri, jubilatzeke adinik ez zutela gehitzen bazaio, eurek nahi edo behar izaten zuten bitartean lanean jarraitu ahal zutelako, argi gelditzen da emakume hauen bizitza mitoak agertzen duen arintasuna baino gehiago zela.

Parejaren esanetan, "garrantzitsua da, memoria berpiztearen garrantziari buruz hitz egiten den garai haue-tan, emakumeen papera oraindik lar ezkutatutik gelditzen dela onartzea, askotan datu eta informazio falta dagoelako, baina beste askotan ere, erakundeek ez dutelako behar beste interesik agertzen. Santutxuko puru sal-tzaileen kasuan, oso pertsonai garrantzitsuak izan ziren auzoan eta tamalez jende askok ez ditu dagoeneko gogoratzen".

**ANGEL**  
HARATEGIA - URDAITEGIA  
Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

**Kafe**  
**Mañari**  
Médico M. Pedro Cortés, 9  
48006 BILBAO  
Telf. 94 411 99 33

**GOIAN S.C.L.**  
**LAN BERTIKALAK**  
Pintura lanak etxaurre eta patioetan  
Ke-irteerak eta Ur-hodiak  
Eraikinetako edozein konponketa  
**ANDAMIO BARIK**  
**TELEFONOAK:**  
**630 08 09 38**  
**659 45 16 22**

# horoskopoa



**Aries: martxoaren 21etik apirilaren 20ra.**

Zu, mozolo hori, deitu egiozu, behingoz. Gero belu izango da eta.



**Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.**

Atxaki-matxaki hasi zara, koxuarena egiten, ez-dakit-ze min dekozula, ... Bizi zaran hamarkada horretan normala izaten da...



**Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.**

Zoaz, zoaz beldur barik. Etorri be pozarren etorriko zara laster baten.



**Cancer: ekainaren 21etik uztailaren 20ra.**

Bilboko altzari dendetako arduradunak zure beldur dira. Zergaitik ete?



**Leo: uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.**

Zegan dago? Hainbeste? Saldu, saldu dana ahalbait arinen.



**Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra.**

Zu, beti-gazte, noiz hasiko zara aitite-amama normalen bizimodua egiten?



**Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra.**

Maripiliren telefono mezuak deszifratu eta adituteko orduak behar izaten dozuz. Esan behar deusazu, egia santua dalako eta gero berandu ailegaten zaralako.



**Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra.**

Zer egingo jako ba? Beti-beti ezin da irabazi. Baina behin sikan...



**Sagittarius: azaroaren 24tik abenduaren 23ra.**

Kaskarina ei zara. Ez dakit ba. Kaskarin eta burugogor batera izan daiteke?



**Capricornius: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.**

Txorimaloa emoten dozu, hor geldirik. Zeozer egin behar dozu, ezta? Hori ez da berez konponduko...



**Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.**

Agur bero bat irletatik. Ederto baten gagoz. Goraintziak.



**Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra.**

Se fue el caimán, se fue el caimán, se fue para Barranquilla... Noiz arte segitu behar dozu ospatzen?

# agenda

## AZAROAK 10

HERRIRA PLATAFORMAREN  
MANIFESTAZIOA. 20:00ETAN.  
RITXI PLAZATIK.

## AZAROAK 12

RUBRILLU MENDIRA EGUN  
OSOKO TXANGOIA. RAMALESEN  
BAZKALDUTA. SANTUTXUKO  
MENDIZALE TALDEA.

## AZAROAK 16

SHARON STONER ETA ZEA  
MAYS. KONTZERTUA. KAFE  
ANTZOKIA. 22:00ETAN.

## AZAROAK 24

ANJE DUHALDE. KONTZERTUA.  
KAFE ANTZOKIA. 22:00ETAN.

## AZAROAREN 27-30

ZINEBI ZINE JAIALDIA.  
ARRIAGA ANTZOKIA.

## AZAROAK 29

PADDY REKALDEK BERE NOBE-  
LA BERRIA AURKEZTUKO DU.  
ASAPALAREN IRAKURLEAREN  
TARTEA. ARBIDEA KALEKO  
EUSKALTEGIA. 20:00ETAN.

udagoieneko

2006 7. edizioa

# ostera

## ZEA MAYS

"Sortuz, grabitatearen aurka"

## BILBO

### Kafe Antzokia

## Azaroak 16

### eguna

### 22:00etan

### sarrera:

### aurretik 6€ bertan 8€

## SHARON STONER

"3.000 bira"

[www.topagunea.org](http://www.topagunea.org)

babeslea BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia Kultura Saila Departamento de Cultura

antolatzailea Topagunea Euskara Elkarten Federazioa

babeslea bbk laguntzaileak BILBAO KAFE ANTZOKIA